



## Obra luze bat irakur ezazu

### Ozeanoaren konkista

*Eman dezagun ikaragarrizko ur eremu zabal, handi eta luze baten ondoko herrixka. Irudimenaren zorroztea ezinbestekoa da, ipuin honetan den-dena izanzen baita izigarri, harrigarri eta neurrigabe...*



*Liburuaren irudietan sartuz, uraren kulunka ikusiko duzue, ozeanoaren mugimenduak entzunen eta aire freskoak ekarri itsas langar gazia sentituko... Irudimena garatuz bainuontzi ttipi bat ozeano handi bilaka daiteke: mugarik gabeko abentura toki!*

#### 1 Ozeanoaren konkista ipuinaren aitzin solasa irakur ezazu.

a) Zer sentitzen duzu testu zati hori entzutean?

b) **Xehetasunak bil itzazu:**


- Non eta noiz gertatzen da ipuina?
- Nor dira pertsonaiak?
- Zer gertatzen da?

**Testuan, inpresioak eragiten dituzten eta testuingurua adierazten duten hitzak eta erran-moldeak gainmarka itzazu.**

**Ondotik 8. eta 9. orrialdeak irakur ditzakezu, osatzeko.**

## 2 10.-14. orrialdeak

Pertsonaiek ozeanoari buruz diotena adieraz ezazu.



- 3 15. orrialdea irakur ezazu zatiak elkarri josiz jarduera erabiliz. Heroiak pertsonaia horren sinesmenak gainditzeko ozeanoan ibiltzea erabaki du, animaliaren harrapatzeko. Haren ibilaldia asma ezazu.




- 4 16. eta 17. orrialdeetan diren irudiak eta testuak konpara itzazu.
- Ametsen jokamoldeari buruz zer erran zenezake?
  - Zure ustez, Lagunek animaliaren harrapatzea lortuko ote du? Idatz ezazu.

Ondotik 18. eta 19. orrialdeak irakur itzazu.

## 5 20.-23. orrialdeak

Hobeki ulertzeko, kirolei buruzko dokumentuak berrirakur ditzakezu: Traineru estropadak “Historia pixka bat” eta traineruaren deskribapena.

Munstroaren ihizia elkarri kontatuko diozue.



## 6 24.-25. orrialdeak

Ikusirakur jarduerari esker, jendeen pentsamenduen aldaketa azal ezazu.

- Distorioaren hastapenean zer sinesten zuen jendeak? Belagileak? Amets?
- Zer gertatu da?
- Aurkikuntza horren ondotik zer aldatu da?

## 7 26.-27. orrialdeak 6. eta 7.ekin konpara itzazu.

- Zertaz ohartzen zara?
- Amets bainuontzian marraz ezazu, eta haren ametsak bunbuilo batean az itzazu. Beste bunbuilo batean amaren deia idatz ezazu.
- Ipaina ametsa zela ohartarazteko seinalerik ba ote zen aitzin solasean?